

**J.MANUEL ODRIOZOLA** IDAZLEA

## «Normalizaziorik ezin da lortu euskara hizkuntza hegemoniko bihurtu arte»

Erredakzioa | IRUÑEA

Euskal Kultura eta Identitatea izeneko ikastaroan elebitasunaren inguruan hausnarketa egiteko hitzaldia eman zuen atzo Jose Manuel Odriozola euskara irakasle eta idazleak.

■ **Zein esparru aztertzen du soziolinguistika historikoa?**

Aurreneko soziolinguistika gaur egungotik bereizteko asmoz, euskarak eta euskal nortasunak jasan duten ordezkapen historikoa bildu nahi izan dut izen horretan.

■ **Noiz gertatu zen ordezkapen historikoa?**

Guk Erdi Aroan kokatu dugu, XII. mendean. Orduan, latina erabiltzetik lekuan lekuko erromantzeak erabiltzera pasatu zen, eta euskaldunon etnozidioaren jatorria Erdi Aroan koka dezakegu.

■ **Nolakoa zen Euskal Herria?**

Euskalduna, euskal elebakarrak zirelako nagusi. Bertako aristokrazia espainolez edo frantsesez ikasten hasi zen. Gero, komunitate elebiduna handitzen joan zen, elebikuntza prozesu norabide bakarreko gertatu zelako: euskaldunek bakarrik ikasi zuten beste hizkuntza. Euskal elebakarrak



UEU

etorkizun gabekoak ziren, betiko ekonomia tradizionalari lotuta jarraitu behar izan baitzuten.

■ **Hizkuntzaren arabera sailkapenak gizarte mailak bereizi zituen?**

Argi dago. Nekazaritza utzi eta zure bizimoduak hobera egitea nahi baduzu, baseritik os-

pa egin, eta elebidun bihurtu beharra duzu. Erdaldun espainola edo frantsesa izatera pasatzen bazara, askoz hobeto, zure estatus ekonomiko eta soziala hobea izango da eta.

■ **Gaur egun, hala ere, erdaldunek euskaraz ikasten dute.**

Euskalduntze prozesu hori

## KULTUR ORDEZKAPENA

«Euskaldunon etnozidioaren jatorria XII. mendean koka dezakegu»

partziala da, eta diglosikoa ere badela gehituko nuke. Nahiz eta euskaraz ikasi ez duten eremu guztietan erabili. Lan eskakizun bezala erabiltzen da, baina bizimodua erdaraz egiten dute. Ez dut uste euskararen normalizazioaz mintza gaitzkeenik.

■ **Nola bultzatu daiteke normalizazio hori?**

Belgika eta Suitza elebitasun sozialaren eredutzat hartu ohi dira, eta lurraldetasunaren arabera finkatu da hizkuntzaren erabilera. Ezin daiteke normalizaziorik lortu euskara hizkuntza hegemonikoa bihurtu arte.

## Auroren ikusgarritasuna

'2. LEGEA. OPTIKA ETA ASTRONOMIA'. Eguzkiak sortzen dituen argi partikula bitxien azalpenak eman zituen atzo Kristina Zuzak

Erredakzioa | IRUÑEA

**A**urorak zer diren eta nola sortzen diren eza-gutzeako aukera izan dute, aste honetan, UEUko Fisika Saileko ikastaroetan parte hartu dutenek. Ikusi, hurbiletik gehienek ez dituzte sekula ikusi. Bai telebistaz edo argazkien bidez ordea. Berdeak, gorriak, arrosak, moreak, mugitu egiten diren argi ikusgarriak dira aurorak.

UEUko Fisika Sailaren ikastaroan parte hartu dutenek izan dute fenomeno bitxi hau hobe-

to ezagutzeko aukera. Izan ere, lehengo urteko irailean, Arantzadi elkarteko bost kide Kanadara joan ziren berauen bila. Helburu nagusia zabaltzea izanik, argazkiak ateratzera eta dena bideoan grabatzera joan ziren. Horietako bat, Kristina Zuza, etorri da, hain zuzen ere, Larraonara. Auroren fenomeno ohikoa den tokietan unibertsitate garrantzitsu eta famatuak daude, baina Euskal Herrian ez da gertakari ezaguna.


Baina nola sortzen ote dira? Kristinak berak azaldukoaren arabera, «lurreko atmosferan

gertatzen den fenomeno da. Bere jatorria eguzki haizean dago. Eguzkiak igortzen dituen partikula batzuk lurrera iristen direnean, eta lurraren eremu magnetikoarekin topo egiten dutenean, bide jakin batzuk bakarrik har ditzakete. Hori dela eta, hegoburutik eta iparburutik sartzen dira partikula horiek. Partikulak atmosferan sartzen direnean, bertako gasa kitzikatzen dute, eta ondoren, gas hori bere oinarriko egoerara itzultzen denean, argia igortzen dute. Horixe bera da aurora moduan ikusten duguna».



Kristina Zuza irakasleak eman zuen hitzaldia.

**S.O.S.**  
ALCOLEA, ALCALA MECO, SOTO DEL REAL...



UZTAILAK 26  
**ENKARTELADAK**  
EUSKAL HERRIKO HERRI GUZTIETAN



**EUSKAL PRESOK**  
EUSKAL HERRIRA

UZTAILAK 27  
12:00 - 13:00

**DENOK**  
ERREPIDEETARA

**BADIRA**  
600 ARRAZOI BAINO GEHIAGO...